IRAGARKIA, 2002ko otsailaren 22koa, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Bizkaiko Lurralde Bulegoko buruarena. Honen bidez, jendaurrean jartzen da ondoren aipatzen den instalazio elektrikoa: aireko eta lur azpiko linea elektrikoa, Barakaldoko udalerrian. 6011

## Pribatuen Iragarkiak

### ARTAZA-ROMO BHI

IRAGARKIA, batxilergoko titulu bat galdu dela jakinarazten duena. 6013

### TOLOSALDEA GLHI

IRAGARKIA, bigarren mailako lanbide hiziketako (L.H.II) titulu bat galdu dela jakinarazteko dena (adarra: administrazioa eta merkataritza; espezialitatea: administraziokoa). 6013

# Xedapen Orokorrak

### LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA

### Zk-2020

77/2002 DEKRETUA, martxoaren 26koa, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen egitekoak, osaera eta jarduketa erregimena ezartzeari buruzko Dekretuaren bosgarren aldaketa egiteko dena.

4/1990 Legearen azken xedapenetako lehenengoak finkatzen duen legezko agindua betez, 263/1990 Dekretua onetsi zen, hain zuzen, urriaren 2koa eta Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen egitekoak, osaera eta jarduketa erregimena finkatzen dituena.

Ondoren, 277/1992, 288/1995 eta 397/1999 dekretuen bidez aldatu egin zen aurreko lerroaldean aipatutako dekretuaren 6. artikulua, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen osaera egokitzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horren egitekoak eta jardute eremuak finkatzeko dekretuei, batetik, eta Lurral-

ANUNCIO de 22 de febrero de 2002, del Jefe de la Oficina Territorial de Bizkaia del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, por el que se somete a información pública la línea eléctrica aérea-subterránea, en el término municipal de Barakaldo. 6011

## Anuncios Particulares

### I.E.S. ARTAZA-ROMO

ANUNCIO por el que se hace público el extravío del Título de Bachillerato. 6013

### TOLOSALDEA IFPS

ANUNCIO de la pérdida de un título de formación profesional de segundo grado (F.P.II), rama de administración y comercio, especialidad de administración. 6013

# Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

### N°-2020

DECRETO 77/2002, de 26 de marzo, de quinta modificación del Decreto por el que se establecen las funciones, composición y régimen de funcionamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

En cumplimiento del mandato legal establecido en la Disposición Final Primera de la Ley 4/1990, se aprobó el Decreto 263/1990, de 2 de octubre, por el que se establecían las funciones, composición y régimen de funcionamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

Posteriormente, a través de los Decretos 277/1992, 288/1995 y 397/1999 se modificó el artículo 6 del Decreto citado en el párrafo anterior, a fin de adaptar la composición de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, por una parte, a los Decretos de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País

de Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren egitura organikoa finkatzen duten dekretuei, bestetik.

Oraintsu, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan egitura berria onartu da eta, ondorioz, horri egokitu beharra dago Batzorde horren osaera.

Ondorioz, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuaren proposamenez, Aholku Batzorde Juridikoa bat datorrela eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko martxoaren 26an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***Atal bakarra.–*** Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen egitekoak, osaera eta jarduketa erregimena ezartzeari buruzko urriaren 2ko 263/1990 Dekretuaren 6.1 artikulua aldatzea. Honelaxe dio aurrerantzean:

Honako osaera hau izango du Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen Plenoak:

Batzordeburua: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburua.

Batzordeburuordea: Lurralde Antolamendu eta Biodibertsitate sailburuordea.

Bokalak:

Ingurumen sailburuordea edo bere ordez izendatzen duen Sailburuordetza horretako zuzendari bat.

Honako sail hauetako ordezkari bana, sailburuorde edo zuzendari izango dena:

1.– Ogasun eta Herri Administrazio Saila.
2.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
3.– Industria, Merkataritza eta Turismo Saila.
4.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
5.– Osasun Saila.
6.– Kultura Saila.
7.– Garraio eta Herri Lan Saila.
8.– Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Lurraldearen Antolamendurako eta Biodibertsitate zuzendariak

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurraldeburuak.

Foru Aldundietako ordezkari bina.

Estatuko administrazioko ordezkari bat.

Euskal Autonomia Erkidegoan ezarpen handiena duen udalerrien elkarteetako hiru ordezkari, bat Lurralde Historiko bakoitzeko.»

Vasco y determinación de funciones y áreas de actuación de la misma y, por otra, a los Decretos por los que se establece la estructura orgánica del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente.

Recientemente, se ha producido una nueva estructuración de la Administración de la Comunidad Autónoma a la que nuevamente es preciso adaptar la composición de la referida Comisión.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, de conformidad con la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el 26 de marzo de 2002.

DISPONGO:

***Artículo único.–*** El artículo, 6.1 del Decreto 263/1990, de 2 de octubre, por el que se establecen las funciones, composición y régimen de funcionamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, queda modificado según la siguiente redacción:

El Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco tendrá la siguiente composición:

Presidencia: El Consejero o Consejera de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente.

Vicepresidencia: El Viceconsejero o Viceconsejera de Ordenación del Territorio y Biodiversidad.

Vocalías:

La o el Viceconsejero de Medio Ambiente o un Director o Directora de su Viceconsejería en quien delegue.

Una persona representante, con categoría de Viceconsejera o Directora de cada uno de los siguientes Departamentos:

1.– Hacienda y Administración Pública.
2.– Educación, Universidades e Investigación.
3.– Industria, Comercio y Turismo.
4.– Vivienda y Asuntos Sociales.
5.– Sanidad.
6.– Cultura.
7.– Transportes y Obras Públicas.
8.– Agricultura y Pesca.

Las personas titulares de las Direcciones de Ordenación del Territorio y Biodiversidad.

Las y los jefes de las Oficinas Territoriales del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa.

Dos representantes de cada Diputación Foral.

Una persona representante de la Administración del Estado.

Tres personas representantes, una por cada Territorio Histórico, de la Asociación de Municipios con mayor implantación en la totalidad del territorio de la Comunidad Autónoma.»

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko martxoaren 26a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Lurralde Antolamendu eta
Ingurumen sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL,

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-2021

AGINDUA, 2002ko martxoaren 21ekoa, Luis Fernando Picaza Cortés jaunak Bizkaiko Justizia Lan eta Gizarte Segurantzako lurralde ordezkariaren kargua utz dezala xedatzen duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 50. artikuluko 2.idatz-zatian xedatutakoari jarraituz, eta aipatutako lege horrek ematen dizkidan ahalmenez baliaturik,

EBATZI DUT:

*Lehenengoa.–* Administrazioan beste lan-postu bat betetzeagatik, Luis Fernando Picaza Cortés jaunak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako lurralde ordezkariaren kargua utz dezala, eta bide batez, egindako lanagatik eskerrak ematea.

*Bigarrena.–* Kargu-gabetze hau 2002ko martxoaren 21ean sartuko da indarrean.

*Hirugarrena.–* Agindu honek administrazio bidea agortzen du, eta, bere aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, EHAAn argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Admi-

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 26 de marzo de 2002.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Ordenación del Territorio
y Medio Ambiente,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-2021

ORDEN de 21 de marzo de 2002, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se dispone el cese de D.Luis Fernando Picaza Cortés como Delegado Territorial en Bizkaia del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 50 apartado n.º 2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, y en uso de las atribuciones conferidas por esta misma Ley.

RESUELVO:

*Primero.–* Cesar, por pasar a ocupar otro puesto en la Administración a D. Luis Fernando Picaza Cortés como Delegado Territorial en Bizkaia del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, agradeciéndole los servicios prestados.

*Segundo.–* Este cese producirá plenos efectos el día 21 de marzo de 2002.

*Tercero.–* Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el Excmo. Sr. Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en el plazo de un mes, a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV o recurso contencioso administrativo, ante el Juzgado